



MAITEMINTZEA ZER DEN...

Parkean,
sastraka artean izkutaturik,
txorien askatasun oihuen
kompasean,
bikoteen muxukatzeari begira
jarduten zenuen,
eguzkia ezjakintasunean
itotzen zen bitartean.

Begien
urrezko dizdira hura
nondik zetorren
ezin barruntaturik,
ezti zaporezko koloredun irrifarre hura
zerk sortua zen
ezin somaturik...
orduak zure albotik aldegiten zuten,
amets gozoetan murgiltzen zinen,
eta,
olatuei edonora eramaten
uzten zenien;
bertatik esnatzen zinenean,
ordea,
min eta malkotan
itotzen zinen.

Ametsen aulkia
hutsik uzten zutenean,
bertara joan
eta,
zu ere maitemindurik zeudenaren
itxura egiten,
baina,
gogo biziz desiatu arren
ez zenuen
zure ingurunea argiz itsutzen,
ez
ondoan zenituen loreak
usainez betetzen,
eta,
egunak joan,
egunak etorri,
malkoak lehortu eta berriro loratu ziren,
eta bakardadean,
maitaleen edertasunaz
kontsolatzen zinen.





Halako egun batean,
konturatu gabe,
maitasunari
zure bihotzean sartzen utzi zenion,
eta
zure barnea kolorez margotu zen,
horiz eta lilaz,
amodio eta indarrez;
gorriz eta laranjaz,
muxu eta laztanez;
eta ai!
inoiz imajinatu ez zenuen
gorriz eta beltzez,
min eta nahigabez.

Bai,
gogorra zen zure ametsari
odola
zeriola ikustea,
hainbeste ilusioz sortutako
maitasun loreetatik
koloredun zetazko hariz eginiko usaiak
alde
egiten zuela sentitzea.

Baina,
hala ere,
lurretik gardenak,
usaigabeak zeuden lore haiek
jaso,
kolore alaietan
murgildu,
eta zure barnea
kolorez margotzeari
ekin zenion;
eta,
loreak zure eskuetan
desegiten zirenean,
zure buruari
etsipenaren zurrunbiloan
galtzen
utzi ordez,
maitekiro,
kimu bat
hartuz,
ama lurrean
barneratu zenuen. ■